# ANEXO 2. CONDICIONES ESPECÍFICAS DE LA VIVIENDA DE URGENCIA SOCIAL

## DEFINICIÓN DEL SERVICIO

Se trata de ofrecer alojamiento a personas y unidades de convivencia que requieren de una estancia de corta duración para poder hacer frente a la carencia de alojamiento derivada de una situación de emergencia o urgencia social.

Se entiende por situación de emergencia o urgencia social en materia de vivienda, aquella producida por accidente, catástrofe natural o condiciones sanitarias adversas, que conlleve imposibilidad de anticipación, con resultado de inhabilitación de la vivienda habitual de la UC solicitante del servicio, en los términos que a continuación se especifican:

- Accidente. Se incluyen los supuestos de accidente los daños producidos por incendio, inundación por avería en las instalaciones propias de la vivienda, derrumbe o riesgo de derrumbe, etc., siempre y cuando la gravedad de estos supuestos obligue al desalojo de la vivienda.

- Catástrofe natural. Se incluye en los supuestos de catástrofe natural las situaciones derivadas de condiciones climatológicas u otras que inhabilite el inmueble en el que se encuentra la vivienda y obligue a su desalojo objetivo.

- Condiciones sanitarias. Se incluye en los supuestos de condiciones sanitarias aquellas circunstancias de la vivienda que impidan su habitabilidad, como son las plagas, la afectación de la vivienda por productos tóxicos y las condiciones de precariedad sanitaria en general, debidamente justificada por parte de los servicios sanitarios y que obliguen al desalojo de la vivienda.

- Otras circunstancias. Podrá prescribirse el uso de la vivienda de urgencia social cuando, a pesar de que no concurran las causas de inhabitabilidad anteriormente expuestas, se produzca la necesidad urgente y constatable de desalojo transitorio de la vivienda habitual, debidamente justificada por parte de los servicios sociales.

Así mismo, deberán concurrir otras situaciones sociofamiliares, como la de no disponer de otra alternativa habitacional de manera transitoria, ya sea en el entorno familiar, por cobertura de seguros, etc. Previamente a la solicitud de uso de la vivienda de urgencia social, deberá haberse descartado cualquier otra alternativa.

## CARACTERÍSTICAS DEL SERVICIO

Es un servicio con baja intensidad de apoyo, que no cuenta con personal presente en el piso, ni con personal específicamente adscrito al mismo, articulándose, en caso necesario, los apoyos externos que resulten idóneos, así como el apoyo del Servicio Social Municipal en el procedimiento de acceso a los servicios y/o prestaciones necesarios del SVSS. La vivienda se ubicará preferentemente en un edificio ordinario de viviendas.

## DOTACIÓN DE LA VIVIENDA Y CONDICIONES GENERALES DEL SERVICIO

El Ayuntamiento de Ermua pone a disposición del una vivienda de titularidad municipal, sita en Abeletxe 10.

La vivienda dispone de las siguientes instalaciones: cocina, salón-comedor, baño completo, aseo y 2 habitaciones.

El servicio de alojamiento será asignado a personas, familias o unidades de convivencia reconocida, según el número de personas que la integran en el momento en el que se formule la solicitud.

Las personas beneficiarias de las instalaciones de este alojamiento únicamente podrán hacer uso de sus enseres de primera necesidad (ropa, enseres de aseo, ayudas técnicas, documentos personales y joyas y alhajas, de cuya conservación serán responsables), quedando expresamente prohibido el desplazamiento de mobiliario y equipamiento doméstico.

## RÉGIMEN ECONÓMICO Y COPAGO

En aplicación del Decreto 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, y considerando que este servicio se inscribe dentro del grupo de servicios de alojamiento, en sus diferentes modalidades, es un servicio ajustado a copago.

Para la determinación del copago, es de aplicación la ordenanza municipal nº 25.

## PERIODO DE CONCESIÓN DEL SERVICIO

El servicio de vivienda de urgencia social está previsto para cubrir el tiempo que media entre la pérdida de la vivienda habitual por las causas descritas en el apartado anterior y la recuperación de la vivienda habitual o la consecución de una alternativa residencial estable.

En cualquier caso, el servicio es de carácter temporal. La estancia puede prolongarse un máximo de 4 meses, excepcionalmente con posibilidad de una prórroga de la misma duración.

## PERSONAS DESTINATARIAS

Tendrán derecho de acceso a una/s plaza/s de la vivienda comunitaria, las personas o unidades de convivencia que cumplan los requisitos previstos en el apartado siguiente y, principalmente, que disponiendo de vivienda habitual, se ven incursas en un proceso de pérdida temporal de la misma por motivos imprevistos y sobrevenidos.

## CAUSAS DE EXCLUSIÓN

Con carácter general, quedan excluidas de la condición de situaciones de urgencia social aquellas situaciones en las que se haya podido anticipar el desalojo de la vivienda habitual y, específicamente:

- Cuando el desalojo de la vivienda habitual se produzca como consecuencia de haberse iniciado un expediente de ruina del edificio en el que dicha vivienda se ubica;
- Cuando el desalojo de la vivienda habitual venga precedido de un proceso de desahucio, por tratarse de situaciones que son previsibles y anticipables;
- Cuando la UC solicitante no disponga de vivienda propia y esa sea la situación de necesidad que se pretenda subsanar;
- Cuando la UC solicitante aduzca situaciones de necesidad económica, para lo cual existen otros sistemas de atención social.

**REQUISITOS DE ACCESO**

1. Empadronamiento:

- Las personas de la unidad convivencial deberán estar empadronadas en el municipio con una anterioridad minima de 6 meses.

2. Unidades convivenciales:

- Constituir una UC independiente con antelación mínima de un año.
- En cualquier caso, a los efectos de ingreso en el servicio, será considerada la composición de la UC en el momento de hacer efectiva la solicitud.

**PROCEDIMIENTO BÁSICO DE ACCESO AL SERVICIO**

Para acceder al servicio de alojamiento comunitario temporal será imprescindible la prescripción de la trabajadora social de referencia, una vez que se hayan descartado otras alternativas habitacionales temporales.

El procedimiento de ingreso en el recurso cumplirá, al menos, con la siguiente tramitación:

- Informe social justificando la necesidad.
- Solicitud formal del servicio que incluya el compromiso del periodo de estancia temporal.
- Concesión/Denegación del servicio mediante Decreto de Alcaldía de Delegación, que incluya las condiciones de tiempo y copago.
- Revisión y propuesta motivada de prórroga si fuera pertinente.
- Concesión/Denegación de prórroga por Decreto de Alcaldía.

**DISPOSICIÓN ADICIONAL**

Para todas las cuestiones relativas al uso y disfrute del servicio de alojamiento comunitario temporal que no queden recogidas en el presente reglamento, será de aplicación la Ordenanza nº 25, reguladora de la vivienda de emergencia de los Servicios Sociales.

## 2. ERANSKINA. GIZARTE-LARRIALDIKO ETXEBIZITZAREN BALDINTZA ESPEZIFIKOAK

### ZERBITZUAREN DEFINIZIOA

Eegonaldi laburra behar duten pertsonei eta bizikidetza-unitateei ostatu ematea, larrialdiko edo gizarte-larrialdiko egoera baten ondoriozko ostatu-gabeziari aurre egin ahal izateko.

Etxebizitzaren arloko larrialdi edo urgentzia sozialeko egoeratzat hartzen da istripu, hondamendi natural edo osasun-baldintza txarrek eragindakoa, aurreratzea ezinezkoa denean, eta, ondorioz, zerbitzua eskatzen duen bizikidetza-unitatearen ohiko etxebizitza desgaitzen denean, jarraian zehazten den moduan:

- Istripua. Istriputzat hartzen dira suteek eragindako kalteak, etxebizitzaren berezko instalazioetan izandako matxuraren ondoriozko uholdeak, erortzeko arriskua eta abar, betiere kasu horien larritasunak etxebizitza uztera behartzen badu.

- Hondamendi naturala. Hondamendi naturalaren kasuan, egoera klimatologikoek edo etxebizitza dagoen higiezina ezgaitzen duten bestelako egoerek eragindako egoerak sartzen dira, baldin eta higiezina modu objektiboan uztera behartzen badute.

- Osasun-baldintzak. Osasun-baldintzen kasuan, etxebizitzaren bizigarritasuna eragozten duten egoerak sartzen dira, hala nola izurriteak, produktu toxikoek etxebizitzan duten eragina eta osasun-prekarietatearen baldintzak oro har, osasun-zerbitzuek behar bezala justifikatuta eta etxebizitza uztera behartzen dutenak.

- Beste inguruabar batzuk. Gizarte-larrialdiko etxebizitzaren erabilera preskribatu ahal izango da, arestian adierazitako bizigarritasunik ezaren arrazoiak ez badaude ere, ohiko etxebizitza aldi baterako husteko premia urgentea eta egiaztagarria gertatzen denean, gizarte-zerbitzuek behar bezala justifikatuta.

Era berean, beste egoera soziofamiliar batzuk ere gertatu beharko dira, hala nola aldi baterako beste bizitoki-alternatibarik ez izatea, dela familia-ingurunean, dela aseguruen estalduragatik, etab. Gizarte-larrialdietarako etxebizitza erabiltzeko eskaera egin aurretik, beste edozein aukera baztertu beharko da.

### ZERBITZUAREN EZAUGARRIAK

Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, ez du langilerik pisuan, ez eta horri berariaz atxikitako langilerik ere, eta, behar izanez gero, egokiak diren kanpoko laguntzak antolatzen dira, bai eta Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntza ere, GZESaren beharrezko zerbitzuak eta/edo prestazioak eskuratzeko prozeduran. Etxebizitza, ahal dela, etxebizitza-eraikin arrunt batean kokatuko da.

### ETXEBIZITZAREN ZUZKIDURA ETA ZERBITZUAREN BALDINTZA OROKORRAK

Ermuko Udalak honetarako udal-titulartasuneko etxebizitza bat jarri du Abeletxe kaleko 10. zenbakian.

Etxebizitzak honako instalazio hauek ditu: sukaldea, egongela-jantokia, bainugela osoa, komuna eta 2 logela.

Ostatu-zerbitzua pertsona, familia edo bizikidetza-unitate aitortuei esleituko zaie, eskaera egiten den unean zerbitzua osatzen duten pertsonen kopuruaren arabera.

Ostatu horren instalazioen onuradunek premia biziko tresnak soilik erabili ahal izango dituzte (arropa, garbitzeko tresnak, laguntza teknikoak, dokumentu pertsonalak eta bitxiak, eta horiek zaintzeko ardura izango dute), eta berariaz debekatuta dago altzariak eta etxeko ekipamendua lekuz aldatzea.

**ARAUBIDE EKONOMIKOA ETA KOORDAINKETA**

Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretua aplikatuz, eta kontuan hartuta zerbitzu hori ostatu-zerbitzuen multzoaren barruan sartzen dela, modalitate guztietan, baterako ordainketara doitutako zerbitzua da.

Koordainketa zehazteko, 25. udal-ordenantza aplikatu behar da.

**ZERBITZUA EMATEKO EPEA**

Gizarte-larrialdietarako etxebizitza-zerbitzua aurreko atalean deskribatutako arrazoien ondorioz ohiko etxebizitza galtzearen eta ohiko etxebizitza berreskuratzearen edo bizitegi-alternatiba egonkor bat lortzearen arteko denbora estaltzeko aurreikusita dago.

Nolanahi ere, zerbitzua aldi baterakoa da. Egonaldia gehienez 4 hilabete luza daiteke, salbuespen gisa iraupen bereko luzapena egiteko aukerarekin.

**HARTZAILEAK**

Etxebizitza komunitarioko plaza bat edo batzuk eskuratzeko eskubidea izango dute hurrengo paragrafoan aurreikusitako baldintzak betetzen dituzten pertsonek edo bizikidetza-unitateek, eta, batez ere, ohiko etxebizitza izanik, ezusteko eta bat-bateko arrazoiengatik etxebizitza aldi baterako galtzeko prozesuan daudenek.

**BAZTERTZEKO ARRAZOIAK**

Oro har, gizarte-larrialdiko egoeratik kanpo geratzen dira ohiko etxebizitza uztea aurreratu ahal izan den egoerak, eta, zehazki:

- Ohiko etxebizitza hustea etxebizitza hori kokatuta dagoen eraikinaren aurri-espediente bat hastearen ondorioz gertatzen denean.

- Ohiko etxebizitza utzarazi aurretik etxegabetze-prozesu bat gertatzen denean, aurreikusteko eta aurreratzeko moduko egoerak direlako;
- Eskaera egin duen bizikidetza-unitateak etxebizitza propiorik ez duenean eta egoera hori konpondu nahi denean.
- Eskaera egin duen bizikidetza-unitateak premia ekonomikoko egoerak argudiatzen dituenean; horretarako, gizarte-arretako beste sistema batzuk daude.

**SARTZEKO BALDINTZAK**

1. Erroldatzea:

- Bizikidetza-unitateko pertsonek udalerrian erroldatuta egon beharko dute gutxienez 6 hilabete lehenago.

2. Bizikidetza-unitateak:

- Bizikidetza-unitate independentea eratzea, gutxienez urtebete lehenago.
- Nolanahi ere, zerbitzuan sartzeko ondorioetarako, eskaera egiten den unean bizikidetza-unitatearen osaera hartuko da kontuan.

**ZERBITZUAN SARTZEKO OINARRIZKO PROZEDURA**

Aldi baterako ostatu-zerbitzu komunitarioa eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa izango da erreferentziako gizarte-langileak preskribatzea, aldi baterako beste bizitegi-aukera batzuk baztertu ondoren.

Errekurtsoan sartzeko prozedurak honako izapide hauek beteko ditu, gutxienez:

- Beharra justifikatzen duen txosten soziala.
- Zerbitzuaren eskaera formala, aldi baterako egonaldiaren konpromisoa jasotzen duena.
- Zerbitzua ematea/ukatzea Ordezkaritzako Alkatetzaren Dekretu bidez, denbora-baldintzak eta koordainketa barne.
- Berrikuspena eta luzapen-proposamen arrazoitua, hala badagokio.
- Luzapena Alkatetzaren Dekretu bidez ematea/ukatzea.

**XEDAPEN GEHIGARRIA**

Erregelamendu honetan jasotzen ez diren aldi baterako ostatu-zerbitzu komunitarioaren erabilerari eta gozamenari buruzko gai guztietarako, Gizarte Zerbitzuen larrialdiko etxebizitza arautzen duen 25. ordenantza aplikatuko da.